



## NORDKAPP '89 ...Ipar Europara neguan eta bizikletaz...

**JOSU IZTUETA**

### **Nordkapp 71° 10' 21"**

**M**ENDIGIROAN egiten diren espedizio gehienak izen eta zenbaki batez dira ezagunak. (Adibidez, Makalu, 8.481 m). Izena mendiarena izaten da eta zenbakia goitasunarena.

Gure kasuan Nordkapp norbegiar izena, 307 metro besterik ez dituen puntu batena da eta 71° 10' 21" puntu horren latitueda.

Aspalditxo ezagutzen genuen mendiko bizikleta eta bidaiaren bat egiteko gogoz genbiltzan, Sahara basamortuko dunak eta hondarrak izan zitezkeen aitzaki baina azkenean Laponiako bideak eta elurrak aukeratu genituen.

Gutako batzuk Laponia ezagutzen genuen 1984. urteko neguan ekialdetik mendebaldera eskiz zeharkatu genuelako baina oraingoan prestaketak guztiz desberdinak ziren.

Negu beltzean termometroa 40° zero azpitik

jeisten den parajeak bere oztopoak jarriko dizkigu: Izoztutako bideak, bizikletaren mekanika, ekipamendua, erortzeko arriskua e.a.

**Bizikletak:** • -50°C tako tenperaturak ondo jasaten dituen grasa erabili zen montaketa lanetan.

• Bide haietan ibiltzeko hiltzedun kubiartak ezin aurkitu eta altzairuzko kateak lortu genituen.

• Pixu guztia eramateko bakoitzak 4 poltsa erabili genituen, bi aurrean eta beste bi atzean jarrita, gainera fondoko eski taulak eta makilak eramateko aukera ikusi genuen.

**Arropa:** Bizikletaren mugimenduaren ondorioz kontutan hartu behar da beti haizea izaten dela eta honek gorputzaren tenperatura mantentzeko arazoak sortzen dituela.

Arropa berezia eraman genuen, txirrindulariek neguan entrenatzeko erabiltzen duten antzekoa.



◀ **Un alto en el camino.**



**Fiesta lapona ▶ en Enontekio.**

Otsailak 5 ean irten ginen Tolosatik (iñauteri igandea). Bi kotxetan sei lagun beste hainbeste bizikleta eta ekipai guztia sartuta abiatu ginen Frantzia, Belgika, Alemania eta Dinamarka egun pare batetan zeharkatu Suedian sartzeko eta gero Baltiko itsasoa ferry batetan pasa eta Suomin (Finlandia) lasaiago ibiltzeko aukera genuen. Otsailak 14 ean KEMI izeneko herrira iritsi (Botnia golkoan) eta etxetik 4.000 km trotara dagoen puntu honetatik hasiko ginen bizikletaz iparralderuntz 800 km. gorago dagoen Norkappera heltzeko asmoz.

## Kontuz!! Minik hartu duzu?

Laponiako elurretan eskiz ibiltzeko bide egokienak izozturik dauden aintzirak eta ibaia dira eta bizikletaz ibiltzeko berriz errepide eta pistak jarraitzea beharrezkoa da.

Bakoitzak 20 kilometroko pisua daramagu bizikletan bi gupil gainean. Bide izoztuetatik pedaleatzea ez da batere erraza, erorketa batzu ere izan ditugu, kontuz joan arren arrisku handia dago eta egurrez kargaturik pasatzen diren kamioak beldur handia ematen digute... minik ez hartzea da gure kezkarik handiena.

Lehen egunean 60 kilometro inguru egin ditugu, arratsaldean elurra hasi du eta bide bazterrean zegoen txabola zahar batetan sartu gara, bertan gaua pasatzeko asmoz, pixka bat berotu nahi eta sua piztu dugu baina minutu gutxi barru txabola gaineko elurra urtzen hasi da eta denda montatu behar izan dugu. Hobe genuen hotza bustia baino!

Hurrengo egunean gaua guztiak antolatuta eta martxan jarri gara Rovaniemi herrira iristeko, trafiko handiena lehen bi etapa hauetan dago, hemendik aurrera kotxe gutxiago ikusiko dugu.

Zirkulo Polarra deritzana Rovaniemitik 10 kilometrotara dago, han atsedenaldira bat

egin eta seiok hilaran goaz bata bestearen atzean, Suomi-Finlandiako lurretan milaka aintzira dago eta esaldi batek dioen bezala «Ez dakizu zer den, aintziraz beterik dagoen baso bat edo irlaz betetako itsaso bat» ... orduko 20 kilometro inguru egiten ditugu eta gasolindegia guztietan geratzen gara, ez gasolina hartzeko noski, kafe beroa edateko baizik.

Gau batzutan norbaiten etxean lo egiten dugu, bestetan dendan, elurretan egindako zulotan edo abandonaturik aurkitutako saun zaharren batetan.

Beste sei edo zazpi egunetan Inarira heldu gara, herri hau Laponiako aintzirarik handienaren ondoan kokaturik dago eta bertan egun bateko atsedenaldira hartzea erabaki dugu. Honaino 500 kilometro dira egin ditugunak eta ez dugu arazo handiegirik izan,

## Hacia Nordkapp, el penúltimo día.



hemendik Nordkappera geratzen zaigunak gogorragoak izango dira.

Otsailak 23, ibai ertzean dagoen Heikkila izeneko txabolan gaude, postaletan eta egutegietan azaltzen diren paisaiak bezalako leku batetan dago, ez da inor bizi inguruko 20 kilometrotan, bizikletaz honaino iristek gustora senti arazten gaitu baina orain arte Same (Laponiar) herria ezagutzeko izan ditugun aukerak izan dira politenak.

## Same herria, jende maitagarria

Zirkulo Polar Artikotik gora dauden lurri deritzaie Laponia, geografikoki hala bada ere administratiboki lurralde hau Norbegia, Suedia, Suomi-Finlandia eta Sobietar Batasunaren artean zatiturik dago.

Laponiak, latitude berdinean dauden Alaska, Canada, Siberia eta Groenlandiako lurrikin badu bereiztasun bat, lau lurralde hauetan ez da ia jenderik bizi, baina Laponiako lurretan aldiz, Sameak bizi dira garai batetan hegoalderago ere hedatuak zeuden baina pixkanaka iparraldera jo beharra izan dute.


Same herriak batz best 80.000 biztanle ditu eta gutxi gorabehera honela banatuak daude:

Suomi-Finlandia .....	7.000
Suedia .....	25.000
Norbegia .....	35.000
Sobietar Batasuna .....	3.000

Kontutan hartu behar da kopurua ezberdina dela zenbatzeko orduan erabiltzen den erizpidearen arabera: Nor da Samea? Han jaiotakoa? gurasoak Sameak dituena? Same hizkuntza dakiena? Gaur egun beraien arteko harremanak sendotzen ari dira eta horretarako behar diren medioak jarri nahiean dabilta, baina Oslo, Estokolmo, Helsinki urruti daude eta gobernuen borondatea ez da Sameentzat gustokoena.

Same herria tradizionalki errenoaren abeltzaintzatik bizi izan da, kostaldekoek berriz arrantza izan dute bizibide, egun esistentzi gogorra darama, inguru baldintzak zailak eta inguru baldintzak zailak dira eta horri kultur eta hizkuntza arazoak gehitu behar zaizkio.





Guk Pekka Aikio, Finlandiako Same jendearen lehendakaria ezagutzeko aukera ezin hobea izan genuen, berari esker kontakto ugari eskeini eta leku guztietan eskuzabalik hartzen gintuzten, ez ditugu sekula ahaztuko, Pekkaren ama eskulanak egiten, Same irratiko programa berezia edo Karasjoken jasotako laguntza.

Udapartean ia egun osoz argi eta negugarraian ia 24 ordu ilunpean, Gehienok ezagutzen duguna gauerdiko eguzkia da baina ezin ahaztu eguerdiko gaua... urtetan eta mendetan zehar ez da hori aldatu baina beldur dira, aurtengo negua azken 100 urtetako epelena omen da, guretzat berriz gure bizitzako hotzena.


## Arnasa izozten zaigu

Goizean goiz esnatu gara Baskojoki izeneko ibaiaren ondoan dagoen txabola batean, baina inor ez gara lozaketik atera, Franzis pixa egitera irten da eta itzuli denean kagurea jarri zaigu, zero azpitik 32º egiten omen du!, tenperatura igoko delakoan denbora pasa egon gara baina irtezeko erabakia hartu dugu. Eskiak jantzi eta bizikletak utzitako lekura goaz, sudurzuloetan azkure berezi bat sentitzen dugu, barruko iletxoak izoztu egiten dira eta gaurko egunean zer espero dezakegun seinale da. Hori gutxi bada gaur eta bihar ez dugu gasolindegirik topatuko, bidai termoetan daramagun ura ere izoztu da eta Angeli herrixkan (10 etxe dira) ezer ulertzen ez duen gizon zahar batek ura eman digu.

Ez da egun osoan termometroa igo, udan lurrezko pista den bide hontan aldapa gora eta aldapa bera goaz, iluntzerako orain 5 urte ezagututako familia baten etxera iritea espero dugu.

Eskerrak egun gutxi barru kostaldean egongo gara eta ez duela hemen bezalako hotzik ingo.

Janaria erosteko aukera izaten da herri handi samarretan, halere geuk gurekin eramaten dugu pare bat egunetarako janaria,



**Pedaleando en la pista de Inari. ▲**

**En la costa hacia Nordkapp. El agua del mar no se llega a helar.**

**3 de Marzo. Llegando a Nordkapp, 71º 10' 21" ▼**

eta etxetik ekarritako produkto energetiko bereziak, korreoz puntu konkretuetara bidalita dauzkagu gero bertara iristen garenean jaso ahal izateko.

Bizikleta bakoitzean ekipaia pertsonala doa eta gero denon artean erabiltzen diren gauzak, nahiz eta denok berdin jantzita joan urrutitik asma daiteke nor doan aurrean, batak denda darama, besteak janaria eta pala, edo botikina, bideoa, errepuestoa eta herraminta.

Karigasniemi herrian Suomi eta Norvegia arteko muga pasatzen dugu, egun bat beranduago itsasoa bistatzen dugu lehen aldiz, gezurra badirudi ere ur hauek ez dira neguan izozten, Mexikoko Golkotik datorren korranteak epeltzen dituelako Norvegiako kostalde guztiak. Dana ondo badoa bi egun dauzkagu Lakselv herritik barkua hartu behar dugun punturaino. Nordkapp irlatxo batetan dago eta ordu bete behar ditu itsasontziak, gure arazoa beste bat da... eguerdi aldera izugarritzko ekaizta altxatu dela elurra, haizea, ezin ezer ikusi, ezin aurrera egin... azken herria 25 kilometro atzerago dago eta

irtenbide bakarra geratzen zaizkigun 10 kilometroak aurrera egitea... zoritxarrez denok sakabanaturik gaude, aurrean goazen hiruak elurretan zulo bat egin eta babesa bilatu nahi dugu, non ote datoz besteak? Egoera larrian gaude bakoitza bere lekuan, bide guztia elurrez estalirik dago eta geu ere tapatuko gaituen beldurrez gaude, halako batetan guregandik 10 metroara argi bat ikusten dugu «kitaniebes» makina bat da eta kunetatik banaka erreskatatu gaitu... barkura sartu garenean lasaitu gara eta Honningsvåg herrian egun oso bat pasatu beharko dugu ekaitzaren ondorioz Norvegia iparraldeko bide guztiak itxirik geratu direlako.





## Bihar bai, bihar iritsiko gara

Mageroy irlan dozena erdi bar herriska daude, hemengo jendea arrantzalea da urtean zehar, eta Uztaila eta Abuztuan turismoa da diru iturri nagusia. Makinak bideak eta Honnissvåg-eko kaleak garbitzeko ahaleginak egiten ari dira. Badirudi eguraldia zerbait aldatzera doala, 25 kilometro geratzen dira azken herriraino, makinak elurra kendu ala geuk atzetik geure bi gupilez aurrera jarraitzen dugu, azken gaua Skarsvåg herriko txabola batetan egiten dugu. Suerte pixka batekin bihar Nordkappera iritsi gaitzke orain arte bizikletaz ekarri ditugun eskiekin.

Gaua luzea egin zaigu, momentu politenak amets gaiztoekin nahasten zaizkigu, egunsentia iristeko gogoz gaude, izozturik dauden lehioetatik ez da zerurik ikusten... eguraldiak erabakiko du!

Erdipurdiko eguna azaldu da, bertakoek ordu batzuk aprobetxatzeko modukoak izango direla esaten digute... 10 kilometro besterik ez dira geratzen, segurantzi neurri bezala gazte batek Ski-doo (Elurmotorra) hartuta lagunduko gaitu, galtzeko arriskua dago eta hobe gauzak ongi egitea, bizikleta bat ere eraman dugu eta aldatzeko bat pasatu eta gero urrutira Norkappeko ezaugarria bistatu dugunean hasi gara sinesten han geundela. 71° 10' 21" han zegoela.

Lehenbaitlehen hartu dugu itzultzeko bidea, eskiz herriraino jeitsi eta gero autobusez, kotxeak 1.000 kilometrotra daude Norvegiatik joaten bagara baina bide erdian Alta-Kautokeino-Enontekio beste 200 kilometrotako ibaldia bizikletaz egingo dugu.

Gogorra izan da, merezi zuen, elurrak urtu eta berriz txuriz estaliko zen, martxoak 3a berriro gogoratuko dugu aurten.

## Partaibeak

Mikel Amundarain, Ibarra; Dina Bilbao, Ondarroa; Josu Iztueta, Tolosa; Franzis Navarro, Alegia; Txitxi Orbegozo, Tolosa.

Fotos del autor.



## RESUMEN

### Cita invernal en el norte de Europa en bicicleta

**C**ADA año en la época de verano, decenas de miles de personas en Europa toman las carreteras en dirección norte y se dirigen hasta el extremo septentrional de la península escandinava, en territorio noruego. Allí, la sensación de estar en la punta del mapa y (si se tiene suerte) de haber visto el sol de medianoche en el horizonte serán un recuerdo imborrable.

El Cabo Norte es seguramente un lugar accesible para muchos de vosotros. Laponia, una tierra situada por encima del Círculo Polar Ártico y que alberga a la comunidad humana más septentrional de Europa, es posible que ya haya merecido vuestra visita.

El siguiente relato en euskera (bastante fácil de entender) trata del desarrollo de la expedición por aquellos parajes en bicicleta de montaña de seis amigos (entre ellos dos mujeres) durante el pasado invierno de 1989...